Bizipenak gurpil gainean

# Drive & Enjoy



# Hautatu zure ibilbidea

10 proposamen hementxe

BILBAO BIZKAIA be basque

Turismo jasangarriago eta arduratsuagoaren alde

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK

# BILBAO BIZKAIA

# Drive & Enjoy

Txartel honekin dirua aurreztuko duzu eta errazagoa izango da Bilbao Bizkaiko egonaldia planifikatzea, bai, garraio publikoan, bai museoetarako, ikuskizunetarako eta abarrerako sarreretan, dendetan eta aisialdiko bestelako espazioetan. Eskatu Bilbao Turismoko bulegoetan edo webgune honetan:

www.bilbaobizkaiacard.com

**2024ko Uztaila** / Bosgarren edizioa

**Argitaratzailea:** Bilbao Bizkaia be Basque

**Argazkiak, turismoko esku-orrien bilduma:** Beste egile batzuk

**D.L.:** BI-1091-2017

BIZKAIKO KOSTALDEA 6



1. ibilbidea Mendebaldeko kostaldea
Memoria sutsu eta gaziak

2. ibilbidea Erdiguneko kostaldea
Olatuak, herensugeak eta txakolina

3. ibilbidea Ekialdeko kostaldea
Dunak, nortasuna eta baso margotuak

ENKARTERRIAK 18



4. ibilbidea Kadaguako ibilbidea
Erdi Aroko oihartzunak

5. ibilbidea Bailara ezkutuen ibilbidea
Natura eta luxua

BIZKAIKO BARNEALDEA 24



6. ibilbidea Nerbioiko ibilbidea
Urak hegan egiten ikasten duen tokia

7. ibilbidea Arratia bailara
Landa-xarma mendi eta larre artean

8. ibilbidea Durangaldea
Omenaldia harriari eta magiari

BILBAO 34



9. ibilbidea Bilboren inguruan
Hiria goitik begiratuta

ENO-TURISMOA 36



10. ibilbidea Bizkaiko txakolina
Oso gurea den ardoa

AUTO-KARABANAZ 38



Zure askatasunean pentsatuz

MAHAIA EDO PINTXOAK 40
Gomendio gastronomikoak nahieran

INFOPRAKTIKOA 42
Helbideak, telefonoak, estekak... jakin ezazu dena

Bizkaia eta bere txoko guztiak, jendea, gastronomia eta historia ezagutuko dituzue.
Euskadi barruan, lurralde txiki batean biltzen den unibertsora sartuko zarete. Kontrastez beteriko herrialdea da hori, nortasun propioa eta antzinakoa dituena. Bada, nortasun hori ematen dion izaera bertako jende abegitsuari, ondo jatea eta jatekoa partekatzea atsegin duen jende horri.
Hamar ibilbide proposatzen dizkizuegu, eta, horrekin batera, baita estimatzen jakingo dituzuen intereseko guneen bilduma ere. Bestetik, mundu guztiari kontatu nahiko diozuen bidaia biziko duzue emango dizuegun iradokizun-sortari esker.

**Ongi etorri.**




BILBAO BIZKAIA be basque

# BIZKAIKO KOSTALDEA

## Hiru mundu, bakarra kostalde





Bilbotik harago, kontraste-leherketa da Bizkaiko kostaldea. Itsasertz berean bizi dira hiru unibertso. Industria, historia eta natura biziaren koktel ezin hobea. Gida honekin, autoz egiteko hiru ibilbide proposatuko dizkizuegu; egun bakoitzerako bana. Lotu uhalak! Zierbenatik Portugaleterainoko industria-ondarearen mugarriak ezagutu ostean, Bizkaia Zubiko edo "Zubi Zintzilikariko" transbordadorera igoko gara, kostaldeko alde dotoreenera iristeko: Getxora iristeko, hain zuzen ere. Hiriko hondartzen aurrean jauregi eta luxuzko etxe ugari dituen herria da Getxo. Algortako Portu Zahar polita bisitatuko duzue; are, Bizkaiko Golkoko kostalde basatienetako batean murgilduko zarete: Sopelan, Bermeon, Gaztelugatxeko Donienen, Mundakan, Ondarroan, Lekeition... Ibilbide honetan, iragan industrialaren aztarnak erakutsiko dizkizuegu, eta familia-giroan egiteko jarduera dibertigarrienak zeintzuk diren adieraziko dizuegu. Era berean, bazter erromantikoen, tokiko gastronomiaren, herrietako jaien eta askoz ere kontu gehiagoren berri emango dizuegu.

Azkorri



Drive & Enjoy

# 1. ibilbidea Mendebaldeko kostaldea

## Memoria sutsu eta gaziak




*Garai batean, itsasoa zen mineral-bagoneten azken geralekua, burdinaren irteera-atea, meatzarien, olagizonen eta milaka langileren izerdizko itsasoen azken helmuga. Garai batean, itsasoa zen goi-burgesia industrialaren luxuzko etxe handietako egongeletako panoramika. Orduan eraiki zen burdinazko zubi erraldoi bat, harrotasunez eraiki ere; monumentua egin zitzaion giza-azkartasunari. Bi mundu kontrajarri baina osagarriren arteko lotura-gunea eraiki zen. Itsaso sutsu eta gazia, malkoz eta txanpainez bustia.*



Bilbotik abiatuta hasiko dugu ibilbidea, A-8 autobidetik, eta Muskiz-La Arena irteeran aterako gara, **Pobeñarako** noranzkoan. Bi aukera izango ditugu hor: lehenengoa, **La Arena hondartzako** duna naturaletan ibiltzea, eta, bigarrena, **Itsaslurreko Bide Berdea** zeharkatzea. Itsasoa azpian duela, aspaldiko trenbidearen trazadura da Bide Berdea (joan-etorria 2 ordutan egiten da, gutxi gorabehera).

BI-3794 errepidean jarraituko dugu ibilbidea, **Zierbena** herrirantz. Portu txikia da, eta bere xarmari eusten dio oraindik ere, arrain- eta itsaski-erretegi zoragarriak baitauzka. N-630tik, **Santurtzira** iritsiko gara, ezkerraldean utziz Bilboko Portuko instalazio erraldoiak.



La Arena hondartza



Santurtzi

Santurtzi da Bizkaiko mendebaldeko marinel-herri nagusia. Bertako sardina-saltzaile alaiek, abesti ezagun hartako protagonistek, arrantza-portuko kale harriztatuetan gora eta behera ibiltzen zituzten beren salgaiak.

Dorretxe Jauregia (SVIII. mendekoa) bisitatu dezakezu, eta interpretazio historikoko zentrotik igaro.

Santurtzi Itsasoa Museoa hartzen du Arrantzaleen Kofradiaren eraikinak, eta, bertan, itsasoaren zaporea duten jatetxe ugarietako bat topatuko duzu. Hortik, udan eta aurretik erreserbatuta, ibilaldia egin dezakegu, ontzi batean, Bizkaiko Golkoko uretan baleak ikusi ahal izateko. Informazio gehiago Santurtziko turismo-bulegoan.

Garai batean gure sardina-saltzaile ospetsuek egiten zuten bidea hartuta, Kantauri itsasoan geratzen diren arrantza tradizionaleko egurrezko azken ontzietako bat bisitatuko dugu: Agurtza atunketaria.

Portugalete Erdi Aroko herria da, Bilboko itsasadarraren ondoan dagoena. Merezi du bertako Alde Zaharra eta Andra Mari eliza gotiko-errenazentista ikustea. Itsasadarraren ertzetik, pasieran joan gaitezke Salazar dorreraino, eta El Solar plazaren zein bertako kiosko neoklasikoaren xarmaz gozatu.





Bizkaia Zubia

Eta, azkenik, azken orduetan handik goitik zuei begira egon den burdinazko eta haize leunezko erraldoi horretara igotzera gonbidatuko zaituztegu. Bizkaia Zubia da, Zubi Zintzilikaria ere esaten zaiona. UNESCOk 2006an izendatu zuen gizadiaren ondare ingeniaritza-lan handi hori. Itsasadarraren bi aldeen arteko topagunea da; hau da, ezkerralde industrial eta langilearen eta eskuinalde bizitegi-eremu eta burgesaren artekoa. Kotxez zeharkatu dezakegu, ontzitxoan, edo oinez, goialdeko pasabide zorabiagarritik ibiliz. Esperientzia paregabea.

Beste aldera iritsitakoan, Getxon egongo gara; Areeta auzoan, zehazki. Getxo oso udalerri handia da, eta, lehenengo ibilbide honetan, Neguri auzoraino iristea proposatzen dizuegu. Ibil zaitezte itsasoaren ondoan, XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako goi-burgesiaren jauregien nobleziak hunkituta.

Garai hartako familia-enpresa handiek irla horiekin egin zituzten harremanez eta eraginez hitz egiten digu auzo horrek duen estilo britainiar finak. Bi modutara goza daiteke ibilbideaz: modu tradizionalean, interpretazio-taulak jarraituz, edo Magic Fly-ren pistak jarraituz (beharrezkoa da smartphonea).

Bilbora itzultzea erraza da: BI-637 errepidea hartu. Horixe da bide azkarrena, baina, presarik eduki ezean, BI-711 errepidetik itzultzea gomendatzen dizuegu. Itsasadarraren ondotik igarotzen da bide hori, eta industria-, burdingintza- eta ontzi-industria gogoangarria, garabiz hornitua, gozatu ahalko duzue. Horrela, pixka bat gehiago ulertuko duzue lanagatik, aberastasunagatik eta gainditze-espirituarengatik itsasoari lotutako herri horren historia.

# 2. ibilbidea Erdiguneko kostaldea

## Olatuak, herensugeak eta txakolina

*Batzuetan amorratuta dagoen, beste batzuetan otzan agertzen den baina beti eskuzabala den itsasoaren kolpeak islatzen dituzte amildegiek. Urre-koloreko hondarrak, ilunabarrak eta herensugeak dituen uhartetxoa. Zamalkatu beharreko olatu erraldoien inguruko kontakizunekin nahasten dira kortsarioen eta baleontzien istorioak. Eta, azkenean, Gernika; gudaren basakeriaren oroigarri bizia eta Euskal Herriaren askatasunen sinboloa.*






Getxo

**Getxorako** noranzkoan aterako gara Bilbotik, BI-637 errepidetik. Leioa gurutzatu ondoren, biribilgunean aurrera jarraituko dugu, Areeta/Las Arenas irteera hartuz. Hurrengo bidegurutzean, Portu Zaharra/Puerto Viejo seinalea jarraituko dugu. Horrela, bada, **Ereaga hondartzara** iritsiko gara. Bertan, itsasora begira dauden eta kirol-portua zein **Algortako Portu Zaharra** babesten dituzten luxuzko etxe dotoreek eskaintzen diguten eszenatoki ederra behatu ahalko dugu. Itsas-xarmaz josiriko amildegian gora egiten duen arrantzale-herria duzue hor. Portuko historia, bertako etxeak eta bertako jendea hobeto ezagutzeko, taulak jarrai ditzakezue, edo, bestela, QRen ibilbidea jarraitu.

Atzera egingo dugu, eta BI-634 errepidera joango gara, **Sopelarako** noranzkoan. Iritsi aurretik, **Berangon**, Burdinazko Gerrikoaren Memoria Museoa bisitatu daiteke. Burdinazko Gerrikoa Gerra Zibilean eraiki zen, Bilbao babesteko. Sopela toki ezin hobea da surfean aritzeko. Hondartzek egitura harritsu apetatsuak eta amildegi zorabiagarriak dauzkate aldamenean. **Barinatxe-La Salvaje** hondartzak (Getxorekin partekatzen da) bere duna-sistema dauka, eta parapente-zaleak elkartzeko tokia da. **Arriatera-Atxabiribil** hondartzaren gainean, hainbat taberna topatuko dituzue, oso animatuak horiek, eta ilunabar liluragarriak behatu ahalko dituzue horietatik.



Arriatera-Atxabiribil



Plentzia-Gorliz





Gaztelugatxeko Doniene

Ibilbideko hurrengo etapa **Plentzia** da. Sopelatik, BI-2122 errepidea hartuta iritsiko gara. Itsasoko jende ugariren etxea eta jatorria da herri hori, eta erakargarritasun hirukoitza dauka: itsasadarra, familia-giroan egoteko hondartza bikaina (ur lasaiak dauzka) eta kirol-portua. Gorliz udalerriarekin partekatzen duen badiak esperientzia bakana eskaintzen digu; izan ere, dastaketa- eta urpeko murgiltze-jarduerak egin daitezke bertan. Munduko lehenengo arrezife-upeltegi artifiziala da: Crusoe Treasure urpeko upeltegia da. Jaso informazio gehiago Plentziako turismo-bulegoan. Badiaren hondoan, Gorlizko duna harrituak daude, 6.000 urtetik gorako antzinatasuna dutenak. Horietatik, ibilbide bat egin daiteke, oinez, Gorlizko farora iritsi arte.

Drive & Enjoy

# 2. ibilbidea Erdiguneko kostaldea

## Olatuak, herensugeak eta txakolina



Mundaka



BILBAO BIZKAIA




BI-3151 errepideak hartuta, Bizkaiko hondartzarik luzeenera eramaten gaitu zuzenean, **Bakiora**. Bertan, kirol ugari egin daitezke; surfa, bereziki. Uda igarotzeko herria da Bakio, baina baserriaren inguruan landa-ekonomiari eusten jakin du. Horren uzta dira txakolinaren ekoizpena eta berori merkaturatzea. Bizkaiak berezkoa duen ardo gazte eta freskoa da txakolina, eta Txakolingunean ezagutu ahalko duzue bere historia.



Bakio

Bakiotik, BI-3101 errepidea hartuko dugu, Bermeorako noranzkoan. Hala ere, marinel-herri horretara iritsi aurretik, ezinbestekoa da bidean geldialdi bat egin eta **Gaztelugatxeko Doniene** irlatxoari begiratzea. Euskal kostaldeko paraje ikusgarrienetako bat da, eta Juego de Tronos (Tronu Jokoa) telesail famatuaren eszenatoki izan zen, herensuge eta guzti. Bi arkuren gainean eraikitako zubia igaro ondoren, batu indarrak ermita txikirainoko 241 eskailerak igotzeko. Gora iritsitakoan, ez ahaztu kanpaia hiru aldiz jo, desio bat eskatu eta espiritu gaiztoak uxatzeaz.



Bermeo

**Bermeon** jada, marmitakoaren eta atun-, hegaluze- eta antxoa-kontserben plazer gastronomikoetan barreiatzen gaitu ibilbide honek. Xarma handia duen arrantza-herri horrek tradizio luzea dauka baleontzien arloan. Arrantzalearen Museora (1944an monumentu nazional izendatutako Ertzilla dorretxean dago) bisita eginez, itsasgizonen eta -emakumeen bizitzari buruzko jakinmina asetuko duzue, eta aurrez aurre izan dituzten zailtasunen berri izango duzue. Alde zaharrean pintxoak jatea eta kolore alaiekin margotutako etxeak dituen portu zaharra bisitatzea, zalantzarik gabe, plan ona da. Baita amildegien eta Izaro irlaren ikuspegiak Talatik gozatzea ere.



BI-2235tik, **Mundakara** iritsiko gara. Nazioartean, surf-helmuga ospetsua da Mundaka, Europan ezkerreko olatu luzeena baitauka. Mundakak arrantza-portuaren inguruan egiten du bizitza nagusia; herriko txokorik harrigarriena da hori, eta elkartzeko zein gozatzeko gunea. Santa Katalina ermitak, kokaleku estrategikoa duenez, estuarioaren irteerak eta sarrerak zaintzen ditu, eta Bizkaiko kostaldean aurki dezakezuen panoramika onenetakoa dauka.

Errepide berean jarraituta, **Gernikara** iritsiko gara. Foru-hiribildu hori ikono ezaguna da mundu-mailan; gerraren zentzugabekeriaren eta ankerkeriaren sinboloa da. Gerra Zibilean bonbardatu zuten, eta, Picassoren lanari esker, bake-irrikaren sinbolo-hiria da egun. Bestetik, Gernikan daude Batzarretxea eta horren arbola ezaguna, Euskadiko eskubideen eta askatasunen zutoihala. Era berean, bisita merezi dute Europako Herrien parkeak, Bakearen eta Euskal Herriaren museoek eta Santa Maria elizak. Gure historiatik pasiera egitea litzateke; gure herri-identitatea eta gure tradizio errotuena ezagutzeko aukera.

Gure ibilbideko abiapuntura itzultzeko, bide laburragoa aukeratuko dugu. BI-635 errepidea hartuko dugu, Zornotzaraino. Bertan, AP-8 autobidea hartuko dugu, Bilborako noranzkoan.



Gernika-Lumo

# 3. ibilbidea Ekialdeko kostaldea

## Dunak, nortasuna eta baso margotuak

*Itsasoko jendea isila izaten da; ekaitzak, naufragioak eta bakardadea ikusi dituzten begiekin begiratzen diote bisitariari. Itsasoko jendeak zurrupada handitan edaten du bizitza, gure hauskortasunaren berri duelako, beren hondartzetako dunekin eta basoekin urrunetik egiten dutelako amets. Beren herriek nortasuna isurtzen dute, beren tradizioek harrotasuna, beren festek pasioa. Nabigatu bertatik gure bidaian.*




**Gernikara** iristeko, horixe baita ibilbide honen abiapuntua, AP-8 autobidea hartuko dugu, Donostiarako noranzkoan. Gero, Amorebieta-Etxano irteera hartuko dugu, eta BI-635 errepidean jarraituko. Gernika, aurreko ibilbidean azaldu den bezalaxe, ezinbestean bisitatu beharreko herria da, Bizkaiko historia eta ohiturak ezagutu nahi baditugu. Bere piper eta babarrun ezagunen sehaska izanik, urteko astelehen guztietan izaten da azoka bertan, eta, urriko azken astelehenean, "Gernikako azken astelehena" deritzon nekazaritza-azoka handia egiten dute.



Gernika-Lumo



Oma

Kostalderantz jarraituko dugu, BI-2238 errepidetik. Kortezubi aldean desbideratzea komeni da, **Omako basoa** edo "Baso animatua" ikusi ahal izateko. Agustin Ibarrolaren lana da hori, efektu optiko berezi eta iradokigarriekin margotutako zuhaitzen multzo artistikoa. Auretiko hitzordua beharrezkoa da. **Santimamiñeko koba** 2008an izendatu zuen UNESCOk gizateriaren ondare. Edertasun handiko berrogeita hamar bat labar-artelan dauzka, eta erakusketak egiteko azken teknologiaz hornituta dagoen interpretazio-zentro bat.

BI-2238 errepidetik itzuliko gara, Arteagara abiatzeko. Udalerri horretan, **Urdaibai Bird Center** bisitatzeko aukera edukiko duzue, hegaztien eta naturaren museo bizia. Bestetik, **Arteagako gaztelua** ikusi ahalko duzue, gotiko frantsesean inspiratutako Goi Erdi Aroko jauregia.

Geldialdi horren ostean, BI-3234 errepidean aurrera garamatza ibilbideak, **Laida eta Laga** hondartzetarantz. Urre-koloreko hondarrak dituen eta mendi altuz inguratutako paradisua da hori.







Laga

Drive & Enjoy

# 3. ibilbidea Ekialdeko kostaldea

## Dunak, nortasuna eta zuhaitz margotuak



Lekeitio



BILBAO BIZKAIA




Bainatzeko hondartza ezin hobeak dira, eta surfa, kayaka, pader-surfa egin daitezke horietan, edo kanoa-ekintzak Urdaibai itsasadarrean. BI-3234tik jarraituko dugu, eta BI-3237an desbideratuko gara, **Elantxobera** iritsi arte. Bi amildegiren artean sartutako herri zorabiagarria da Elantxobe. Bertako portuan, marea bizidun igerilekuetan hartu ahalko duzue atseden.


Elantxobe

Kotxez 12 minutura, BI-3238 errepideak **Eako** magiara eramango gaitu. Marinel-herri txiki-txikia da. Itsasadar batek zeharkatzen du, eta kalatxo bat dauka itsasadar horren amaieran. Lehenengo unetik bertatik liluratuko zaituzte. Arrantzaleen urratsak jarraituz, Bizkaiko kostaldean, BI-3238 eta BI-2238 errepideetatik, **Lekeitiora** iritsiko gara. Taberna eta jatetxe ugari dituen portu koloretsua dauka herri horrek; bai eta kondairazko irla bat eta Alde Zahar dotorea ere.


Ondarroa

Lekeitiori agur esan, eta **Ondarroara** abiatuko gara itsasoaren ondotik igarotzen den BI-3438 errepide panoramikotik. Alde Zaharrean, Likona dorrea eta Andra Mari eliza (biak dira XV. mendekoak) ikustea merezi du.

Ibilbide hau ezin hobea da tokiko gastronomia dastatzeko: marmitakoa (hegaluzea patatekin), txipiroiak beren tintan, bisigu errea, txirlak saltsa berdean... Hori guztia, Bizkaiko txakolin on batekin lagunduta.

Ondarroatik, BI-633 errepidea hartuta, **Markina-Xemeinera** iritsiko gara. Done Jakueren iparraldeko bidearen barruan dago sartuta herri hori. Bertako jauregi errenazentista eta barrokoek iragan distiratsua izan zuela erakusten dute.

Markina-Xemeinetik 4 bat kilometrora, BI-633 errepidea Durangorako noranzkoan hartuta, **Ziortza-Bolibar** seinalea jarraituz (BI-2224 eta BI-4401 gero), Ziortzako monasterioa edo **Zenarruza monasterioa** dago. Done Jakueren iparraldeko bideko monumentu historiko-artistiko garrantzitsua da hori. Bertan, platereskо estiloko klaustroa nabarmentzen da, bakarra baita Bizkaian.

Bilbora itzultzeko, BI-633 errepidea berrartuko dugu, Durangorako noranzkoan. Han, AP-8 autobidea hartuko dugu, Bilborako noranzkoan.


Ziortzako monasterioa

# ENKARTERRIAK

## Bizkaiko Jaurerriko mendebaldea

Ibilbide honetan, Bizkaian beharbada gutxien ezagutzen den eremua ikusiko duzue; bailara emankorren eta naturaren eta gure historian oso esanguratsuak diren herrien arteko sekulako konbinaketa da. **Bizkaiko Jaurerrian mendebalderen dagoen eskualdea da Enkarterriena, eta muga egiten du Kantabriarekin eta Burgosekin. Dirudienez, jaurerriak beretzen zituen herriei pribilegioak eta askatasunak ematen zizkieten foru-kartetan dauka jatorria izenak. Monumentu-balio handiko ibilbide historikoa da hori, eta, era berean, paisaiaren edertasunak eta bertako kobazuloen lurpeko munduaren magiak harrapatuko zaituztete.**




Pozalagua

# 4. ibilbidea Kadaguako ibilbidea
## Erdi Aroko oihartzunak

*Orduan, gorriz tindatuta jaitsi ziren Kadaguako ur argiak. Bandokideen guduek eskualdea suntsitu zuten; dorretxeek su hartzen zuten, eta herriak etxeetan hartzen zuen babes. Erdi Aroko oihartzunak gaur harri bihurtuta, handikeria indianoen jauregi bihurtu zen bezalaxe; itzulitako migratzaile aberastu eta nostalgiko horien jauregi bihurtu zen handikeria. Gaur, bizitzak baketsu egiten du aurrera, lapiko sutsuen usain gozoen artean. Hormek eta almenek iragan heroiko baten soinuak gordetzen dituzte gaur, eta, agian, baita batzarrean bildutako nobleen espirituak ere, ibaia zein kolorez jaitsiko den eztabaidatzen oraindik.*






Kadagua ibaiaren ertzean monumentu historikoz jositako ibilbide honi ekiteko, BI-636tik aterako gara Bilbotik, eta BI-3651 errepidearekin egingo dugu bat, **Gueñeserako** noranzkoan. Urrutia etxeak hartuko gaitu. Gaur udaletxea den etxebizitza da hori, eta egun batean Indietara joan eta aberastuta itzuli zirenen lekuko mutua. Erlijio-arkitekturan, Santa Maria eliza (XVI. mendea) nabarmentzen da, gotiko isabeldarraren eta errenazimenduaren erakusle handia baita.


ARENATZarte


Abellaneda

Naturaren eta artearen arteko bizikidetza bitxiaz gozatzeko, **ARENATZarte** bisitatu dezakegu, Arenatza parkean (Gueñesen). Lorategi botanikoa da, non zuhaitz bereziak eta eskultura abangoardistak dauden.

Familian etortzen bazarete, bisitatu ezazue Bizkaia Park Abentura, oztopo-zirkuituak, puzgarriak eta rokodromoa dituen parkea. Industria-pabilioi erraldoi baten barruan dago, Arangoiti industrialdean. 700 pertsonarentzako lekua dauka.

Gueñesetik irtengo gara, etortzeko erabilitako errepide bera hartuz. Hala ere, BI-3602 errepidea hartuko dugu gero, **Zallara** iristeko. Mugaldeko auziei eta antzinako burdinolei dago lotuta herri horretako historia. Ondare historiko baliotsua dauka; hala nola, Murgatarren jauregia dago bertan, XVII. mendekoa, egungo udaletxea dena, edo Terreros dorrea, bandoarteko gerren garaiko defentsa-eraikuntzaren adibide ona.








Balmaseda



San Pedro Zariketeko ermita nabarmentzen da. Horren ondoan, Gernikako Arbolaren kimu bat landatu zen. Aire zabalaz gozatzeko, **Bolumburu** aisialdi-gunea aurkituko duzue; bestela, Roblako trenbidearen antzinako trazaduran ibil zaitezkete pasieran.

Ibilbide hau egitean, nahitaez bisitatu behar da **Abellaneda** herria. BI-3602a jarraituz, Zallatik aterako gara, eta BI-2701 errepidea hartuko dugu aurrerago. Abellanedako Batzarretxean biltzen ziren eskualdeko kontzejuetako ordezkariak, eta hor hartzen zituzten gai orokorrei buruzko erabakiak, XIV. mendetik XIX. mendera bitartean. Gaur, Enkarterrietako museoaren egoitza da Bizkaiko Jaurerrira atxikitzean herri horiek gozatzen zituzten pribilegioen eta askatasunen multzoaren sinbolo hori. Hurbildu zaitezte gure historiaren zati hori ezagutzera.

**Balmasedan** amaituko dugu gure iraganeko oihartzunetara egindako bidaia. BI-2701tik itzuli ondoren, BI-630 errepidea hartuko dugu, 15 minututan baino gutxiagoan iristeko herri horretara. Inguruan biztanle gehien dituen hirigunea da, eta edertasun handiko Alde Zahar historikoa dauka, non Zubi Zaharra, harresiko lekuko zaharrena, den buru. Balmasedako Aste Santuan, 50.000 pertsonatik gora erakartzen dituen eta errealismoz beteta dagoen Pasio Biziduna birsortzen da. Txapela tradizionala ekoizten zuen antzinako fabrikak, egun La Encartada Fabrika Museoa denak, industria-iraultzaren amaierara eramaten gaitu. Eraikinak bisitatu ditzakegu, eta balio handiko makina orijinalak ikusi. Bitxikeria gastronomikoak gustuko badituzue, putxeren iragana eta orainaldia ezagutu nahiko dituzue. San Severino egunean prestatzen dituzte putxerak, urriaren 23an. Lapikoko tradizionalak dira, babarrunetan eta sakramentu guztietan (txerri-saiheskia, xingarra, txorizoa, odolkia...) oinarritutakoak. Bilbao-La Robla lineako trenbideetako langileek egiten zituzten lehen, makinen ikatzaren beroarekin, putxera batean edo tren-lapiko batean. Sekulakoa da babarrun horiek bertako txakolinarekin laguntzea.

Balmasedatik Bilbora, 30 minutu besterik ez daude BI-636tik joanda.

# 5. ibilbidea: Bailara ezkutuen ibilbidea

## Natura eta luxua

*Lurra apetatsua izaten da bere paisaia modelatzera jolasten denean, eta, batzuetan, nahiago izaten du ezkutuan egin, naturaren arauei aurka egiten dieten ezinezko formak dituzten kobazuloak egitean. Enkarterrietako txoko batean, inguruneak sortzen dira, eta gauza ederren bildumak egiten dira: antzinako autoak gaztelu batean. Berdeak gainezka egiten du bailaretan, eta babesa ematen die espezie babestuei eta dinosauru bati edo besteri. Xuxurlatzeko sekretuak gordetzen dituzte ezkutuko tokiek.*






El Pobal burdinolatik hasiko da ihesaldi hau, Bizkaian geratzen diren azken burdinoletako batetik. Bilbotik iristeko, A-8 autobidera joan behar dugu Kantauriko autobidetik, eta Muskiz/La Arena/Playa-Hondartza irteera hartu, N-634 errepidetik jarraitzeko. Gero, BI-2701 irteera hartuko dugu (Galdames/Sopuerta/Zalla/Balmaseda), El Pobal auzora iritsi arte. El Pobaleko burdinola hidraulikoa da, XIII-XIV. mendeetan ohikoa zena. XVIII. mendean, berritu egin zuten, eta gaur ezagutzen dugun moduan utzi zuten.

Bisitatu daitekeen eraikin-multzoa da, eta burdinolak berak, olagizonak bizi ziren jauretxeak, ogi-labe txiki batek eta irin-errota batek osatzen dute.

BI-2701 errepidetik jarraituko dugu, Sopuertaraino. Hurrengo geralekua Sopuerta Abentura izango da, zuhaitzetan familia osoarentzat egindako abentura-parkea. Hor, hamar zirkuitu



Loizaga dorrea

topatuko ditugu; horietako hiruk tirolinak dauzkate, hainbat kirol-jarduera egin daitezke zuhaitzetan eta zailtasun-maila ezberdinak daude, metro 1etik 21 metrora arteko altueran.

Natura-ingurune berezi horretan aire zabaleko jarduerez gozatu ondoren, BI-2701ra itzuliko gara, Sopuertatik igarotzen den tokira, eta BI-3601tik jarraituko dugu, **Loizaga dorrera** iritsi arte. Antzinako autoen eta auto klasikoen museoa da hori. Erdi Aroko dorre batean dago museoa, eta etengabe dauka mundu-mailan ezaguna den auto klasikoen erakusketa: egoera ezin hobean dauden Rolls-Royce automobilen bilduma pribatu berezia dauka.

BI-630tik gidatuz egingo dugu aurrera, **Karrantzako bailararantz**. Hori horretara iritsi aurretik, **Karpin Abentura** dioen seinalea jarraituko dugu. Animalia basatiak hartzeko zentroa da hori. Berori bisitatuz gero, aro jurasikora egingo dugu jauzi, dinosauruen urratsak jarraitzeko.



Pozalagua

BI-630etik jarraituko dugu bidea, Ranero (BI-4679) eta **Pozalagua kobak** adieraziko dizkigun bidegurutzeraino. 2013an, Espainiako Txokorik Onenaren saria jaso zuten koba horiek (Repsol gidaren saria); izan ere, estalaktita eszentrikoen kontzentrazio handiena dauka mundu-mailan. Grabitateari aurre eginez hazten dira, sustrai-itxurako forma apetatsuak imitatuz.

Ustekabean topatu zuten Raneroko haitzen barrunbeetan ezkutatuta dagoen altxor hori, 1957an, harrobian dolomia-leherketa bat egin zutenean. Pasabide metaliko batean egiten da kobazuloko paseoa, eta "Versalles aretora" eramango zaituzte pasabideak berak, meajarduerarengatik lehortutako laku bat zeharkatuz. Amaieran, bobeda-itxura duen begiratoki handi batetik (125 metro ditu luzetara, 70 zabaleran eta 12 altueran), kobazulo osoaren edertasuna ikus daiteke.

Uztailaren erdialdean, kobazuloen ondoan, aire zabaleko musika-jaialdi bat hartzen du Pozalaguako harrobi zaharreko auditorium naturalak, eta euskal folkloreko artista nabarmenduek jotzen dute bertan. Bestetik, tokiko gaztandegiak bisitatzeko aukera ematen du bailarak, bai eta Karrantzako ardi-gazta ospetsuak dastatzekoa ere. Karrantzako turismo-bulegoan jaso ahalko duzue esperientzia horiei eta beste jarduera batzuei buruzko informazio gehiago.

BI-630etik jaitsiko gara Pozalagua kobazuloetatik, Karrantzarako noranzkoan, eta, bidegurutzean, Lanestosarako norabidea hartuko dugu (BI-3622). Bertako Erdi Aroko hirigunearen eta harriztatutako kalezuloen edertasunak harritu egiten dute. Bisita gidatu batekin, XVII. eta XVIII. mendeko egundoko jauregiak landa-eremuko etxeen artean bizi direla ikusi ahalko dugu. Era berean, ikustekoak dira oraindik ere zutik dauden indianoen luxuzko etxeak. Ibilbide batzuek Kobenkoba Labar Artearen Interpretazio Zentrorako bisita ere egiten dute. Informazio gehiagorako: www.lanestosa.net

Bilborako itzuleran, N-629 errepidea hartuko dugu, A-8tik itzultzeko, Laredo/Bilbao noranzkoan.



Karrantza bailara

# BARRUALDEA

## Tradizioa mendi artean

Mendia maite baduzue, hauxe da zuen tokia. Mendia kirola eginez gozatzeko aukera-sorta zabala eskaintzen dizkizuete ibilbide hauek; hala nola, eskalada, espeleologia, mendi-ibilia, barrankismoa, parapentea, puentinga eta askoz ere gehiago egiteko aukera. Era berean, bertako basoen berdearen edertasun zirraragarria behatu ahalko duzue, eta bailaren azpian dauden herritxo interesgarrien harzoletatik pasiatu ahalko dituzue mendiko botak. Eta, nola ez, euskal mitologiako istorioak elikatzen dituzten tokietatik ibili ahalko zarete. Istorio horietan, antzinako sinesmenek bizirik irauten dute, eta, horien arabera, inguruko mendi eta basoetako kobetan bizi dira sorginak eta lamiak.




Etxano

# 6. ibilbidea: Nerbioiko ibilbidea

## Urak hegan egiten ikasten duen tokia

*Bizkaia eta Araba, ahizpak eta aldamenekoak. Bailarak, mendizerrak, ibaiak, historia eta ametsak partekatzen dituzte. Edertasuna, ohiturak eta ardoa partekatzen dituzte. Erdi Aroko harzolak, ateak, arkuak eta oihartzunak; iragan oparoen, aduanen eta, Europako iparraldera bidean, artilea Gaztelatik ontzira-tze-portuetara eramaten zuten merkatarien oihartzunak. Hor, ura aire bihurtzen da; goi-goitik egiten du hegaz, ibai baten sorburua isuri nahi baitu Bizkai gainera, Nerbioi ibaia bera, zeina indartsu iritsiko den Bilbora iraganari zentzua ematera, etorkizun infinituak berreraikitzera.*




Bilbotik BI-636 errepidetik irtenda, BI-2604 errepidean desbideratuko gara eta, horrela, **Gordexolara** iritsiko gara. Burdinaren industria oso garrantzitsua izan da herri horretan, XX. mendera arte aktibo iraun baitzuten bertako burdinola zaharrek. Era berean, jauregien eta etxetzarren lurra da, bai eta dorretxeen eta indianoen luxuzko etxeena ere.

Ibilbide honetan, Arabako eskualde bat ezagutzea proposatuko dizuegu, Aiaraldea ezagutzea, **Artziniega** eta **Kexaa** herriak ikus ditzazuen. BI-2604 errepidea utzi gabe, lehenengo herrira sartuko gara. Erdi Aroko hiribildu txikia da, non Artziniegako dorrea, Museo Etnografikoa eta Arteko Gure Ama santutegia nabarmentzen diren. Askotariko kirol-jarduerak egin ditzakezue bertan, eta bide zein pista ugarien bidez ezagut ditzakezue inguruak. Oinez, bizikletaz edo zaldiz, nahiago duzuen bezala.



Artziniega

Ibilbideei eta mendi-ibiliei buruzko informazio gehiago Aiaraldeako eta Goi Nerbioiko turismo-bulegoan.

Artziniegan, A-624 errepidea hartuko dugu, eta, 12 bat minutuan, **Kexaan** egongo gara. Kexaako erdialdea monumentu-multzoa da, jauregi gotortuak, elizak, dominikarren komentuak eta Adatsaren Ama Birjinaren kapera-dorreak osatzen dutena.

A-624an kilometro gutxi batzuk egin ondoren, Aresketamendira iritsiko gara, Energia Berriztagarrien Parkera (Amurrio). Aire zabaleko tokia da, eta, bertan, hainbat energia-iturrirekin zerikusia duten tresna ezberdinen funtzionamendua ikusi eta probatu ahalko dugu. Horrela, garapen jasangarriaren aldeko apustuan sartuta dauden energia-printzipioak ezagutuko ditugu. Oso aproposa familia-giroan bisitatzeko.



Kexaa



Urduña







Nerbioi ibaiaren jauzia

**Amurrion, A-625a hartuko dugu, Urduñara**iritsi arte. Horixe da hiritulua duen Bizkaiko herri bakarra. Aspaldi, eta Gaztelari dagokionean, merkataritza- eta aduana-gunea zen. Egun, ondare zibil eta erlijioso garrantzitsua eskaintzen du.

Foruen plaza abiapuntu ona da Gorobel mendilerroan oinez edo bizikletaz ibiltzera joateko. Bertigorik ez baduzue, Nerbioiko begiratokira igotzea gomendatzen dizuegu. Hortik, euskal geografiako ikuspegi bikainenetako bat behatu ahalko duzue: **Nerbioi ibaiaren jauzia**. 300 bat metroko jauzia egiten du ibaiak, zaldi-buztanaren itxura duen ur-jauzi batean. Horretarako, A-2625 errepidea hartu behar duzue, eta Urduñako portua igo. Portuaren gainaldean, Santiago mendiaren sarrerarekin topo egin arte jarraitu behar dugu errepidean. Ezkerraldean, etxola baten ondoan, pasabide kanadar bat eta lehenengo aparkalekua aurkituko ditugu. Bidean barrena, lau aparkaleku topatuko ditugu (3.a dago jauzitik hurbilen); leku mugatua dute, eta, horietako batzuetan, ordaindu egin behar da. Aparkatu ondoren, baso-pista jarraitu besterik ez da egin behar, eta "Santiago iturria-Nerbioiko jauzia PR-BU 42" ibilbidea jarraitu. Garrantzitsua: ur-jauzia ikusteko, eurite- edo urtzaldi-garaian joatea gomendatzen dizuegu.

Urduñatik BI-625etik irtenda, bidean atzera egingo dugu, Amurriotik igaroz, eta A-624 errepidetik jarraituko dugu. Hor, BI-2522 errepidea hartuko dugu, zuzenean eramango gaitu-eta **Orozkora**. Bertako kaleak zeharkatu ditzakegu, eta Olarteko San Bartolome eliza, Anunzibai zubia eta Legorburu jauretxea (Museo Etnografikoaren egoitza) ikusi.

Bilbora itzultzeko, nahikoa izango da AP-68ra sartzea. Berehala egongo gara Bizkaiko hiriburuan.

# 7. ibilbidea: Arratia bailara

## Landa-xarma mendi eta larre artean

*Gorbeia mendi erraldoiak dotoreziaz zaintzen ditu bero-ri inguratzen duten bailarak. Artzainek eta beren ardiek duela mendeak ikasi zuten belar freskoa duten mendi-hegal onenak atzematen. Ibilbide hau murgilaldi hutsa da, esperientzia hutsa, bakana. Dastatu, bazkatu, eta ur termaletan edo postaletako urtegietan murgildu gero. Arratia basatia da, benetakoa eta bere-berea.*




Bilbotik, **Arratiako bailarara** abiatuko gara, Gorbeiako eta Anbotoko gailurren artera. AP-8a hartuko dugu, Donostiarako noranzkoan, eta, gero, Galdakaoko 105. irteera hartuko dugu. Bada, N-240 errepidean jarraituko dugu, Gasteiz/Galdakao Ospitalea noranzkoan, **Igorrera** iritsi arte. Herri lasai horrek ezin hobeto islatzen du gauza txikiek ematen duten plazerra. Bere ondarearen barruan, XVII. mendeko Bildosola jauregia, Zubizarreta etxea eta herriko hainbat baserri gailentzen dira. XVI. mendearen eta XVIII. mendearen artean eraiki ziren baserriak.




Areatza

Igorre atzean utzi, eta **Areatzara** joango gara, N-240 errepidetik. **Gorbeiaren** babespean dago herri hori. Bizkaiko mendirik altuena da Gorbeia (1.842m), eta horrek ematen dio izena natura-parkeari. Areatzak arkitektura-ondare handia dauka: Santa Isabel komentua, San Bartolome eliza eta, plazan, Gortazar jauregia eta estilo neoklasikoko udaletxea. Hortxe baita ere, Areatzako Interpretazio Zentroa edo Parketxe deritzona topatuko dugu, ingurune natural hori familia-giroan hobeto ezagutzeko aproposa.

Arabaren eta Bizkaiaren artean dago **Gorbeiako natura-parkea**, eta 20.000 hektareatik gora dauzka. Euskadiko natura-erreserba handiena da. Gorbeiaren tontorrean, 18 metroko gurutzea dago, parkearen sinboloa dena.


Gorbeia

Gailurrera igo nahi baduzue, Areatzatik gora egiten duen errepidea hartu eta autoa **Pagomakurre** jolas-eremuan uztea gomendatzen dizuegu. Hortik aurrera, mendi-ibilia egiteko ibilbidea seinaleztatuta dago.

Zailtasun txikikoa da, eta 4 ordutan egin daiteke joan-etorria (12 km).


Otxandio




Gorbeia

Areatzako Bainuetxe Hotelean, spa zirkuitu batez gozatu ahalko duzue; edo, bestela, gaztandegi batera joan zaitezkete, Idiazabalgo jatorri-deitura duen gazta egiteko prozesua ikusi eta dastaketa batez gozatzera.

Gainera, latxa ardia ezagutuko duzue (Euskal Herriko arraza autoktonoa da hori), edota Gorbeiako artzain-txakurren lana ikusi (Informazioa eta erreserbak: +34 946 941 212, www.viajesporeuskadi.es).

Areatzatik, N-240tik, Gasteizerako noranzkoan, Otzarretako pagadi ikusgarria ikusiko dugu. Horraino iristeko, 38,5. kilometroan, Barazarren gainaldera iritsitakoan, eskuinaldeko hormigoizko bidetxoa hartu behar da. "Gorbeiako natura-parkea" dioen kartela dago. Hormigoizko bide horretatik jarraituta, kilometro batera gutxi gorabehera, bidegurutze batera iritsiko zarete. Ezkerreko bidea hartu, eta zuzen jarraitu, Otzarreta ondoan dagoen aparkalekura iritsi arte.

Otzarretako pagadia toki magikoa da, xarmaz beterikoa, ipuinetako paisaia. Ehun urtetik gorako pago horiek ez dira horizontalki hazten, bertikalki baizik; izan ere, duela 50 urte baino gehiago, adarrak kimatzen zizkieten, egurretik ikatza ateratzeko.

N-240ra itzuliko gara, Gasteizerako noranzkoan, eta, gero, A-2620 Legutio-Aramaio-Arrasate/Mondragón errepidetik jarraituko dugu. Horrela, **Legutiorako** bidean jarriko gara. Arabako txoko eder-ederra da Legutio, larre berdeez eta Urrunagatik eta Albinatik hurbil dauden urtegiez inguratuta dagoena. Sarreran, arku bikoitz zorrotza duen Erdi Aroko atari zahar batek barrualdeko euskal baserri ohikoetarantz bideratuko gaitu. Udan, urtegietako hondartza artifizialetan freskatu ahalko zarete, eta uretako kirolak egin.



A-623tik eta BI-3941tik, **Otxandiora** iritsiko gara; Bizkaiara, berriro. Udaletxetik Santa Mariñe elizaraino, non Vulcano iturria nabarmentzen den, monumentu-aberastasunak liluratuko zaituzte. Hurrengo helmuga **Dima** dugu. Herri horretara iristeko, BI-2543 errepidea jarraituko dugu. Bertako ondare historikoan, hauek aurki ditzakegu: San Pedro Apostoluaren parrokia-eliza, guruztoki-ermita, Urizar jauregia, Ziarrusta dorrea eta Lamindaoko Andra Mari eliza gotikoa.

Bilbora itzultzean, Igorrerantz abiatuko gara, eta, N-240 errepidetik joanda, A-8a hartuko dugu, Bizkaiko hiribururaino iristeko.

Drive & Enjoy

# 8. ibilbidea: Durangaldea

## Omenaldia harriari eta magiari

*Mari jainkosa harkaitz biluzian bizi da. Harat-honat ibiltzen da pagadien artean; babestu eta uxatu egiten du. Harri-puska izugarriak lurraren aurka zanpatzen gaitu; hilkor soilak gara. Urkiola magia da, erritu pagano eta kristauen toki, Euskal Herriko jendeen beldurrek sortutako izakien azken aterpea. Bere oinetara dauden hiribildu nobleek jauregiak eta sekretuak ezkutatzen dituzte, eta goiko gailurrek lur honen handitasuna, herriaren askatasun-grina eta bailaren abegia gordetzen dituzte.*





Urkiola

Bilbotik, A-8tik Donostiaranzko norabidean, **Durangora** iritsiko gara. Edertasun handiko ingurune naturala da Durango, eta, bertan, hamaika aukera daude aire zabaleko jarduerak gustuko dituztenentzat. Hirigunean, hainbat elementu eta eraikin enblematiko aurkitu ahalko dituzue; hala nola, Kurutziagako gurutzea, Uribarriko Andre Mari basilika, jauretxeak, 1937ko bonbardaketak utzitako hondakinetan zeharreko ibilbidea eta "Memoriarako gunea", gertakari lazgarri haren oroitzapen gisa eraikitako monumentua. Durangoko Liburu eta Disko Azoka, abenduan egiten dena, Euskal Herriko kultura-azoka garrantzitsuena da.

Ingurune berdeen zale amorratuak bazarete, **Urkiolako natura-parkea** bisitatzea proposatzen dizuegu. Durangotik BI-623 errepidea hartuta, natura-parke horrek eskaintzen dizkizuen paisaia ikusgarriak begiratu ahalko dituzue. Bertan, mendizerrak eta kareharrizko haitz zuri handiak topatuko dituzue, baita amildegiak eta bailara sakonak ere, edota baso nahaspilatsuak eta larre leunak. Gainera, mendian gora egin daiteke, edo mendi-ibiliak egin, edota eskalada zein rappela egin.

Natura-parkearen goialdean, mendi-hegal batean, Antonio Santuen santutegia dago (Abad eta de Padua).


Argiñeta


Elorrio

Lizarrez, urkiz eta pagoz inguratuta dago, eta kristautasunaren jatorriekin dago lotuta bere historia. Santutegiaren aurrean, harri bat dago. Sinesmen herritarraren arabera, meteorito bat da, eta ahalmen bereziak ditu: senarra aurkitzeko, ezkontzeko adinean zeuden neskatilek harri horren inguruan birak eman beste-rik ez zuten egin behar. Gaur egun, mutilentzat ere balio du. Multzoa hainbat ostaturekin, aterperekin eta jatetxerekin osatzen da.






Durango

Durangora itzuli ondoren, **Elorriorako** bidea hartuko dugu BI-636tik. Hala ere, geldialdia egin dezakegu bidean, **Atxondon**, familia-giroan pasiera lasaia egin nahi badugu, Durango-Arrazola trenaren antzinako ibilbidea baliatuz. Anbotoko harrizko pareta izugarrien artean ezkutatuta, **Arrazolako Bide Berdea** dugu. Oso bide laua da, 10 kilometroko joan-etorria dauka, eta bi ordutan egin daiteke. Kotxez ere egin daiteke, BI-4332a hartuta (errepide paraleloa da). Horrela, Bizkaia berde eta landatarrenaz goza dezakegu.

Hortik, beste bisita gomendagarri bat dago: **Betsaidera** igotzea. Tope deritzon tokian, Arrazolako Bide Berdearen azken gunean, autoa utzi, eta seinaleztatuta dagoen pista batetik ordubetez gora eginda, gailurrera iritsiko gara. Han, ikuspegi paregabeak topatuko ditugu, eta mendiaren isiltasunean erlaxatuko gara. Euskadiko hiru lurraldeak (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia) elkartzen diren tokia da hori, hain juxtu ere. Monumentu batek oroitzen du mugarri geografiko hori.

Gure abiapuntura itzuliko gara, Apatamonasteriora (Axpe-Atxondo), eta errepidea hartuko dugu berriro; N-634tik lehenengo, eta N-636tik gero, Elorriora iritsi arte. Bertako ondare historikoaren balio handiarengatik nabarmentzen da herri hori: harri sendoz eta harlanduz egindako jauregi eta etxe nobleak daude, baina baita Santa Ana monastegia, Sortze Garbiaren basilika, Don Telloren atea, Tolako jauregia eta Erdi Aroko harresiaren hondarrak ere. Elorrioren kanpoaldean, BI-3321a hartuta, **Argiñetako** nekropolira hurbildu gaitezke. Euskadiko hilobi-monumentu garrantzitsuenetakoa da hori, Goi Erdi Aroan eraiki zena.

Bizkaiko hiriburura itzultzeko, Elorriorako bidean atzera egingo dugu, N-636a hartuta, Durangora iritsi arte. Gero, AP-8a hartu, eta Bilboraino joango gara.



# BILBAO inguruan

Bilboz gozatzeko beste modu bat proposatuko dizuegu: zeru-goietatik begiratzea, eta bertako jendeak maitasunez "el Botxo" (zuloa) zergatik esaten dion ikustea. Bilbao babesten duten mendietatik, hiri-panoramika zoragarriez gozatu ahalko duzue, naturaren isiltasunean barreiatuta.







# Enoturismoa: TXAKOLINA

Txakolinaren kultura ezagutuz, hobeto ezagutuko gaituzue, baita gure kultura zein ohiturak ezagutu ere. Txikizkako ekoizpenarekin hasi zen, baina, gaur egun, ezinbestekoa da gure jatetxe eta sukaldeetan. Dasta ezazu, eta gozatu bere zapore bitxi eta bereizgarriaz.

Drive & Enjoy

# 9. ibilbidea Bilboren inguruan

## Hiria goitik begiratuta

*Natura eskuzabala izan da Bilborekin. Mendiek hiria babesten dute, eta gune irekiak zein birika berdeak eskaintzen dizkiote. Altuera aliatu ona bihurtzen da hiriaren historiako protagonista eta lekuko nagusia den itsasadarraren joate bihurriaren inguruko eraikin historikoen eta eraikin berrien arteko konbinaketa bitxia behatu ahal izateko. Bilbao ikusteko beste modu bat da zeru-goietan ibiltzea eta panoramika izugarriez gozatzea, Alde Zaharretik Abraraino, horixe izaki itsasotik Bilbora sartzeko atea.*




Bilboko jendeak maitasunez esaten dio bere hiriari Botxo (zuloa). Mendi artean sartuta dago, eta, horietatik, itsasoa ere ikus daiteke, eguna oskarbi badago. Ikuspegi bakan horiek ikusteko, lehenengo **Artxandako begiratokira** joatea proposatzen dizuegu. Igotzeko bi modu dauzkagu: funikularrez ala kotxez. Erakargarriagoa da Artxandako funikularrean igotzea. Funikularrak 1915etik lotzen ditu Bilbao eta Artxandako gailurra. Ibilbideak ez ditu 3 minutuak gainditzen, eta Funikularraren plazan (Castaños kalean) hartu ahalko duzue.


Artxandako funikularra

Kotxez, Salveko zubitik aterako gara Bilbotik, eta Daniel Buren artista frantziarraren "L'arc rouge" ate gorri handiaren azpitik igaroko gara, Begoñarako noranzkoan (BI-625). Lehenengo biribilgunean, Txurdinagarako irteera hartuko dugu. Hurrengoan, hirugarren irteera hartuko dugu, eta, hortik aurrera, **Artxandaraino** eramango gaituzte seinaleek.

Begiratokian, hiriaren panoramika izugarriaz gozatuko duzue. Hiriko zonalde zaharrenak zein eraikin berrienak ikusi ahalko dituzue, eta bi eskulturak harrituko zaituztete. "Engranajea" da bata, Artxandako lehenengo funikularraren benetako pieza, eta "Aztarna" da bestea, Gerra Zibileko biktimen omenez egindako eskultura.

Zeru-goietako bidaiarekin jarraituko dugu, **Akarlandarantz**. Naturan bikain sartutako jolas-parkea da. Horra iristeko, Artxandatik behera egin behar dugu, BI-3741 errepidetik (Enekuriren goialdetik), eta Asuaranzko noranzkoa hartuko dugu lehenik, BI-604 errepidetik. Gero, BI-2704tik jarraituko dugu, Asua/Loiu norabidean, biribilgunera iritsi eta Loiu/Plentzia norabidea hartu arte. Akarlandak kanpina, futbito-zelaia, saskibaloi-zelaia, monopatinean ibiltzeko pista eta abar dauzka. Aire zabalean dauden mahaietan, piknika antola dezakezue, eta Martiartu dorrea zein Forestal Park abentura-parke handia bisitatu ditzakezue inguruetan. Forestal Park toki ezin hobea da familian joateko, hainbat jolas baitauzka, eta tirolina ikusgarriak zuhaitzen artean.


Zugaztieta







**Zugaztieta** meatze-paisaia izango da gure hurrengo bisita.

Akarlandatik, Leioa-Unbe errepidea (BI-2731) hartuko dugu, eta, lehenengo biribilgunean, Unibertsitateko errepidetik (BI-647) jaitsiko gara, hurrengo biribilgunean BI-637 errepidearekin (norabide guztiak) topo egin arte. Gero, A-8tik gidatuko dugu, Santanderrerantz. Gero, 126B irteera hartuko dugu, Ortuella/Trapagaran norabidean.

Trapagaranetik, autoz igo gaitezke Zugaztietara, bihurgunedun trazadura batetik (BI-3755). Bestela, Larreinetako funikularrean igo gaitezke, eta Bilboko Abraren ikuspegi izugarriak behatu. Zugaztieta antzinako meatze-herrixka da, Trianoko mendietan hedatzen dena. Hortik hurbil, Peñas Negras Ingurumen Interpretazioko Zentroa dago. Inguruan, hainbat laku topa ditzakegu. Garai batean, antzinako meatze-ustiapenetako putzuak ziren horiek, aire zabalean induskatzen baitzen burdina. Bertan, ohikoak dira "babarrun-janak". Denboran iraunten duten jatetxe bitxietan dastatu ahalko dituzue, meatze-auzoan bertan.

Gure azken panoramika **Kobetamendikoa** izango da, Bizkaiko hiriburuaren biriki berdeetako batekoa. Zugaztietatik Trapagaranera jaitsiko gara, eta A-8a hartuko dugu berriro, Bilborako noranzkoan. Lehenengo, 119. irteera hartuko dugu, BI-636 errepidera sartzeko, Balmasedarako noranzkoan. 5. irteera (Zorrozgoiti/Altamira) hartu eta Kobeta adierazten duten seinaleak jarraitu ondoren, aisialdi-gune horretara iritsiko gara. Oso leku egokia da familian egoteko; izan ere, parke bat dauka laku baten ondoan, eta hiriaren zein bertako metropoliaren ikuspegi izugarriak eskaintzen ditu. Inguru hori udan nabarmentzen da, bertan egiten baita BBK LIVE pop-rock musika-jaialdia. Pentsa, azken edizioan 140.000tik gora lagun bildu ziren bertan.

Bilbora itzultzeko, Basurtu/Kastresana (BI-636) errepidea hartuko dugu, eta, Altamira seinalea jarraitu ondoren, hiriburura sartuko gara.

Bilbao Artxandatik

Drive & Enjoy

# Txakoli Ibilbideak

## Bizkaiko txakolina, oso gurea den ardoa

*5 ibilbide, Euskal Herriko lekurik eta paisaiarik esanguratsuenak zeharkatzen dituztenak. Bizkaiko geografia, txakolinaren bidez, produktu izarra baita. Aurkitu, bisitatu, begiratu eta batez ere dastatu bakoitza!*




## UPELTEGIAK

1. ABIO UPELTEGIA
2. BUTROI UPELTEGIA
3. ERDIKOETXE UPELTEGIA
4. GARKALDE UPELTEGIA
5. GORKA IZAGIRRE UPELTEGIA
6. DONIENE GORRONDONA UPELTEGIA
7. MAGALARTE LEZAMA UPELTEGIA
8. MAGALARTE ZAMUDIO UPELTEGIA
9. URIARTE UPELTEGIA
10. ZABALA UPELTEGIA
11. GALDAMES UPELTEGIA
12. MARKOLETA UPELTEGIA
13. TXABARRI UPELTEGIA
14. ULIBARRI UPELTEGIA
15. VIRGEN DE LOREA UPELTEGIA
16. AMUNATEGI UPELTEGIA
17. BERROJA UPELTEGIA
18. ITSASMENDI UPELTEGIA
19. HASIBERRIAK UPELTEGIA
20. BIZKAI BARNE UPELTEGIA
21. GURE AHALEGINAK UPELTEGIA
22. UGABE UPELTEGIA
23. ARRITXOLA UPELTEGIA
24. ETXERRIAGA UPELTEGIA
25. MENDRAKA UPELTEGIA
26. AXPE UPELTEGIA

### Enkarterri

Erdi Aroko hiribilduak ingurune natural batez inguratuta daude, mendebaldera hedatzen da, gailurren eta haranen, haitzuloen, kobak eta bide ezkutuak, paisaia ezohikoa, aldi berean itsasoarekin bat egiten duena.

Bere tradizio gastronomikoen artean, gozagarriak nabarmentzen dira tren-putxeretan prestatutako babarrunak Balmasedakoa. Ezinbestekoa da, halaber, Pobaleko burdinola bikaina eta bilduma esklusiboa Loizaga Dorreko Rolls-Roycekoa.

### Nerbioi ibilbidea

Arabako lurraldearekin partekatzen den ibilbidea, nola banatzen diren haranak, mendilerroak, ibaiak, txakolina eta historia. Gaztelako salgaiak igarotzeko ibilbidea iparraldeko portuetarantz.

Nerbioi ibaiaren sorburua da, bere urak izen bereko itsasadarreraino daramana, Bilboko arteria ibaia.

### Durangaldea

Erdi Aroko kaleak, monumentuak eta jauregiak historiaren aztarnak gordetzen dituzte, berezia den enklabe natural baten barruan.

Ibilaldia euskal mitologian eta oroimenean zehar herri harrigarriak aurkitzea ahalbidetzen duena, garaietatik paisaia ikusgarria menderatzea eta, nola ez, gastronomia bikaiana.

### Erdiguneko Kostaldea

Olatu surfeagarriak eta baleazaleen istorioak jasotzen dituzten harea finezko hondartzak.

Isasoko eta ilunabarren maitaleak kostaldera erakarri dituzten herriak dira. Udako giro jendetsuak, bisitariei itsasoaz, kostaldeko paseoetaz, jaietaz eta gastronomiataz gozatzea animatzen du. Txakolinak, gainera, protagonismo berezia hartzen du Bakion, Txakolingunea, txakolinaren museoarekin.

### Ekialdeko Kostaldea

Urdaibaiko erreserba inguratu, Gizadiaren ondarea, itsas herrietan, labarretan, hondartzetan eta eta edertasun handiko herrietan sartzeko.

Zure ibilbidean, txakolina gidari duzula, Markina-Xemeinera iritsiko zara, interes handiko ondarekatalogo batekin.

BILBAO BIZKAIA

# BIZKAIKO TXAKOLINAREN FESTAK

- **Bizkaiko Txakolinaren Eguna:** Bizkaiko Txakolina Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzaileak udaberrian ospatzen du urtero, herrialdeko pertsonaia ospetsuei txakolinaren enbaxadore berriak izendatuz, edizio bakoitzak agertoki ezberdina duen jai batean.
- **Branke Jaia:** martxoa eta apirila bitartean, Mendibile Jauregian (Leioa), Bizkaiko Txakolina Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzailearen egoitzan, urteko uztaren aurkezpena egiten da urte hasieran.
- **Txakolinaren jaia Bakion:** martxoaren 19an, ohiko San Jose Azokan, Bakiok Txakolinaren Jaia ospatzen du. Txakolingunean dastatu daitekeen sagardo berria apadrinatu eta aurkezten da.
- **Larrabetzu Txakolin Eguna:** martxotik apirilera bitartean Larrabetzun Txakolin Eguna ospatzen da. Txorierriko upeltegiek Bizkaiko Txakolina Jatorri Izendapenarekin antolatzen duten jaia.
- **Txakolin Eguna Urdaibain:** azoka honetan eskualdeko gazta eta txakolina dastatu eta dastatzeko aukera dago. Ekaineko lehen larunbatean ospatzen da Gernika-Lumon.
- **Lezamako Txakoli Eguna:** urtero, ekainean, txakolinaren jaia ospatzen da Lezaman. Bizkaiko Txakolina Jatorrizko Deitura duten upeltegiek jai giroan aurkezten dituzte txakolinak.
- **Muskizko nekazaritza-azoka:** ekoizleen arteko topagune tradizionala, Bizkaiko hainbat eremutako txakolinak eta bertako beste produktu batzuk dastatzeko. Irailean ospatzen da.
- **Uribeko gastronomia-urria:** Uribeko eskualdeak hainbat jarduera enogastronomiko egiteko aukera eskaintzen du, hala nola txakolindastatzeak, dastatzeak eta tokiko produktu gehiago egiteko tailerrak: taloa, artisau-garagardoa...
- **Txikiteroen festa:** urriaren 11n txikiteroek (ardo zaleen koadrila edalontzi txikian) omenaldia egingo diote Begoñako Ama Birjinari (Begoñako Amatxu), Bilboko zaindariari. Topaketa honetan hainbat jarduera ludiko izango dira Bilboko Alde Zaharrean.
- **Balmasedako mahats-bilketaren jaia:** urriko hirugarren igandean Balmasedak Mahats-bilketaren Jaia ospatzen du, Bizkaiko Txakolina jatorrizko deiturari atxikitako upeltegien partaidetzarekin. Txakolina dastatzeko aukeraz gain, dastatze komentatuak, haurrentzako tailerrak eta zuzeneko musika ere antolatzen dira.
- **Urriko azken astelehena Gernikan:** merkatu honetara Bizkaia osoko ekoizleak joaten dira. Hitzordu nagusia Gernikako erdigunean izango da, 900 postu ingururekin.
- **Txakolin eguna Mundakan:** urtero, abenduko lehen zubian, azoka txiki bat egiten da txakolina eta bertako produktuak dastatuz.
- **Santo Tomas azoka:** baserritarrak (baserrietako biztanleak) beren produkturik onenekin jaisten dira Bilbora. Ehun mila pertsona baino gehiago bertaratzen dira abenduaren 21ean Bilboko Areatzan eta Plaza Barrian egiten den azokara.

# TXAKOLINGUNEA

Txakolinaren museoa, Txakolingunea, Bakioko sarreran dago. Erreferentziazko herria da Bakio ardo gazte eta fruta-gustuko hori egiteko unean. Ikusentzunezko bitartekoen eta teknologia interaktiboaren bidez, txakolinaren kulturan barreiatzeko eta horren ezaugarri bereziak hurbiletik ezagutzeko aukera ematen digu Txakolinguneak.




Txakolinaren historia eta txakolinak azken garaiotan izan duen bilakaera ezagutuko dugu. Baserriko ekoizpen tradizionalak jatorrian zituen balioetatik azken aurrerapen teknologikoak sartu diren artekoa. Horretaz gain, txakolin ezagunena zuria bada ere, txakolin gorria edo beltza egiten duten upeltegiak daudela ikasiko dugu; kopuru txikiagotan ekoizten diren arren, txakolin bereziak eta kalitatekoak izaten jarraitzen dute.

Basigoko bide nagusia 3. Bakio.
94 602 85 13 / 94 619 33 95
txakolingunea@bizkaia.eus
www.bizkaikoa.bizkaia.eus



# AUTOKARABANAK

## Zure askatasunean pentsatuz

*Autokarabanaz bidaiatzea loturarik gabe bidaiatzea da, toki bakarrean ez geratzea, naturarekin eta jendearekin harremanetan bizitzea. Bilbao eta Bakio horretarako toki ezin hobea dira. Distantziak laburrak dira, paisaiak aldakorrak, kontrasteak bakarrak eta errepideak panoramikoak. Eta, jakina, zure atsedena ziurtatuta dago, toki ikusgarrietan, hiria edo itsasoa azpian. Askatasun-herria da hau; egin ezazu askatasuna zeure.*

## BILBAO, Kobetamendiko gunea



Bilboko autokarabana-gunea da Kobetamendi. Bada, hiriko panoramika ikusgarrienetako batez gozatu ahalko duzue bertatik. Kobeta mendian dago (Altamira auzoaren gainean), Bilbotik 10 bat minutura kotxez joanda.

Era berean, ondo komunikatuta dago, garraio publikoaren bidez (Bilbobuseko 58. linea). Kobetamendi autokarabana-gunea irekita egoten da urte osoan zehar, Bilbao BBK Live jaialdia egin aurreko eta egin osteko egunetan izan ezik (uztailean izaten da). Egun horietan, beste aparkaleku bat prestatzen da inguruetan.

Gunean, 80 partzela daude, eta konexio elektrikoa zein ur edangarriaren hargunea daude bertan. Guneak 24 orduz edukitzen du zaintza, eta, gainera, ur grisak eta beltzak husteaz gain, komunak daude. Tarifa finkoa da, eguneko eta ibilgailuko, bertan dauden pertsonen kopurua kontuan hartu gabe. Era berean, informazio turistikoa ematen da, eta aurretiazko erreserba onartzen da. Instalazio hauetatik hurbil, garagardotegi-jatetxe bat dago. Bertan, aisialdirako gune zabala dago kanpoaldean; ezin hobea familia-giroan egun lasaia igarotzeko, edo atseden hartzeko.

### KOBETAMENDI

Gehieneko egonaldia: 48 ordu
Leku kopurua: 80
Helbidea: Kobeta mendia 31 • 48002 • Bilbao
Telefono-zenbakiak: 94 465 57 89 /688 80 93 99
Emaila: kobetamendi@suspertu.net
Weba: www.bilbaoturismo.net




Nola iritsi:
Kotxez. Bilbon, A-8 autobidea hartuko dugu, Balmasedarantz, Altamira-Goi Kastresana noranzkoan. Lehenengo, Altamiraranzko saihesbidea hartu, eta, gero, Karmelo mendira doana. Azken saihesbidetik 900 metro ingurura dago gunea.
Autobusez. Bilbobus hiri-autobusen 58. lineak (Mitegitueta-Atxuri) Atxuriko geltokitik autokarabana-gunerainoko ibilbidea egiten du.






# BIZKAIA, kostaldea eta barrualdea

Eta, Bilbotik kanpo, garrantzi historiko handiko herri ederretan aparka dezakezu zure autokarabana. Gorlizen familia-giroan gozatu ahalko duzu hondartzaz, eta, Sopelan zein Mundakan, surfa egin ahalko duzu. Bestetik, Bermeon eta Lekeition, Bizkaiko gastronomiaz gozatu ahalko duzu, eta gure arrantza-herrietako marinel-ohiturak ezagutu. Lanestosak eta Elorriok monumentu-ondare izugarria eskaintzen dizkizute, bai eta beren natura-ingurune berde eta menditsuetarako ikuspegi zoragarri eta ikusgarriak ere. Horietan, mendi-ibiliak eta mendiko kirolak egin daitezke. Gidatu ezazu autokarabana gunez gune, eta ezagutu bertako turismo-eskaintza anitza.



## AUTOKARABANA-GUNEA DUTEN KANPINAK

### SOPELA

Sopelako kanpina
Helbidea: Atxabiribil hiribidea 30, 48600 Sopela, Bizkaia
Telefono-zenbakia: 946 76 19 81

### GORLIZ

Arrien kanpina.
Helbidea: Uresarantze bidea 15 Bis, 48630 Gorliz, Bizkaia
Telefono-zenbakia: 946 77 19 11

### MUNDAKA

Portuondo kanpina.
Helbidea: Urdaibai - Biosfera Erreserba, Portuondo auzoa, 48360 Mundaka, Bizkaia
Telefono-zenbakia: 946 87 77 01

### MENDEXA / LEKEITIO

Leagi kanpina
Camping & Bungalows Leagi
Helbidea: Leagi auzoa 4, 48289 Mendexa, BIZKAIA
Telefono-zenbakia: 946 84 23 52



## AUTOKARABANA-GUNEA

### SOPELAKO AUTOKARABANA-APARKALEKUA

Leku kopurua: 24
Gehieneko egonaldia: 48 ordu.
Helbidea: Urgitxieta kalea z.g. • 48600 • Urko kiroldegiaren ondoan. Sopela
Weba: www.sopelaudala.org

### LANESTOSA. AUTOKARABANA-GUNEA

Leku kopurua: 22
Helbidea: Mirabueno kalea z.g. • 48895 • Lanestosa
Telefono-zenbakiak: 946 806 116 / 675 716 161
Emaila: lanestosaturismo@gmail.com
Weba: www.lanestosa.org

### ELORRIO. AUTOKARABANA-ZERBITZUGUNEA

Leku kopurua: 10
Gehieneko egonaldia: 72 ordu.
Helbidea: San Jose kalea 10B • 48230 • Elorrio
Telefono-zenbakiak: 94 682 01 64 (turismo-bulegoa) / 94 658 27 12 (Udaltzaingoa)
Weba: www.visitelorrio.com

### BERMEO PERGOLAKO GUNEA

Leku kopurua: 10
Gehieneko egonaldia: 48 ordu.
Helbidea: Matxitxako etorbidea z.g. • 48370 • Bermeo
Telefono-zenbakia: 94 617 91 54
Weba: www.bermeo.eus

### LEKEITIO AUTOKARABANA-GUNEA

Leku kopurua: 15
Gehieneko egonaldia: 48 ordu
Helbidea: Iñigo Artieta etorbidea 4 • 48280 • Lekeitio
Telefono-zenbakia: 94 684 40 17

### PARKING BAKIO

Leku kopurua:40
Gehieneko egonaldia: mugagabea
Bestalde Auzoa, 50 • 48130
www.bakio.org

# MAHAIAN esertzen bazarete

*Zaporez beteriko mundu oso bat eta produktu-aukera handia eskaintzen dizkizue Bizkaiak; plazer hutsa, bai dastatzeko, bai partekatzeko. Topa dezakezuenaren lagin txiki bat doakizue hementxe. Ez zaitezte joan guztia probatu gabe!*

## SARDINAK

Kanduak dionez, "¿Quién compra? Sardina freskue..." Sardina hartu berrien freskotasunagatik eta kalitateagatik da ezaguna Santurtzi. Egin geldiune bat bertako arrantzaportutik hurbil dauden jatetxeetan, eta liluratu zaitez horien soiltasun apartarekin.





Sardina-jana

## GARAGARDOTEGIAK

Entsalada on batez, oilasko erreaz eta garagardoaz gozatzea, aire zabaleko terraza batean gainera, iganderako plan ikaragarria da, bai familian bai lagun-artean egitekoa. Garagardotegi ospetsuenetako batzuk topatuko dituzue Bilbon, Berangon, Plentzian eta Santurtzin.

## ARRAIN-ERRETEGIAK

Erreboiloa, bisigua, itsas-zapoa, txitxarroa, legatza... Arrain freskoa, hartu berria, artisau-lan huts bihurtzen da itsas-usainarekin batera txinpartak ateratzen dituzten suetan; besteak beste, Lekeition, Bermeon, Algortan (Getxon), Ondarroan, Mundakan, Pobeñan, Gorlizen, Bilbon edo Zierbenan. Tokiko eta kalitateko produktua, tradizioari lotua.

## GOI-MAILAKO SUKALDARITZA

Euskadi harro dago bertako janariaz. Berrikuntzak eta goi mailako sukaldaritzak bat egiten dute Bizkaian 15 Michelin izarrak duten 13 jatetxeetan Bilbon, Larrabetzun, Atxondon, Galdakaon, Zornotzan eta Diman.

## BABARRUNAK

Euskal gastronomia tradizionalena: babarrunak sakramentuekin. Babarrun-eltzekari hau, txarribodako produktuekin eta hainbat barazkirekin batera egiten dena, sekulakoa da neguan jateko. Non? Orozkon, Zugaztietan, Morgan, Garain, Diman, Gernikan, Balmasedan, Sodupen eta bertako "putxeratan". Eta, ausartuz gero, txuleta on bat gero.





## SAGARDOTEGIAK

"Typical basques" esperientzia: kupeletik zuzenean erortzen den sagardo naturala edatea eta sagardotegiko menua dastatzea: bakailao-tortilla, bakailaoa piper berde frijituekin eta txuleta. Eta, postrerako, Idiazabalgo gazta, irasagarra eta intxaurrak.



# edo, bestela, PINTXOAK

*Tradizio guztiz euskalduna da. Tabernetako barretan hasi ziren agertzen, premiak bultzatuta, eskatzen ziren ardoei laguntzeko. Pixkanaka, edonor seduzitzeko duten gaitasuna dela-eta, ezinbesteko bihurtu ziren, askoz ere erakargarriagoa eginez jarraitu beharreko ibilbidea.*



*Pintxoak halako sofistikazio-mailara iritsi dira, ezen pintxo bakoitza ongien datorkion ardoaz lagundu behar baita. Pintxoak jatera joateko ohitura Bizkaiko edozein herritan aurki daiteke, aldi berean gastronomia eta adiskidetasuna lantzen baititu. Leku jakinetan pintxo-ibilbideak daude, bakoitza bere estiloan, eta txikitoak hartzeko ibilbideen bide berari jarraitzen diote. Benetako gozamena da "miniaturako sukaldaritzaren" jaki gozo hauetako bat dastatzearen bizipena bera.*

Drive & Enjoy

# INFOPRAKTIKOA



Urdaibaiko erreserba

**BILBAO TURISMOA**
www.bilbaoturismo.net

**BIZKAIA TURISMOA**
www.visitbiscay.eus

**EUSKADI TURISMOA**
www.turismo.euskadi.eus

## TURISMO-BULEGOAK

### BILBO

BILBO TURISMOA
· Plaza Biribila 1, Terminus eraikina · 944 795 760
· Mazarredo zumarkalea 66 (Guggenheim Bilbaoren ondoan)
· Aireportua 944 031 444

### BIZKAIA

**BAKIO**
946 193 395 · www.bakio.eus

**BALMASEDA - ENKARTUR**
946 802 976 · www.visitenkarterri.com

**BERMEO**
946 179 154 · www.bizibermeo.eus

**DURANGO**
946 033 938 · www.turismodurango.net

**ELORRIO**
946 820 164 · www.elorrioturismo.eus

**GERNIKA-LUMO**
946 255 892 · www.gernikainfo.eus

**GETXO**
944 910 800 · www.getxo.eus/turismo
ITG - Informazio Turistikoko Gunea
Martxotik abendura · 615 75 62 90

**GORLIZ**
946 774 348 · www.visitgorliz.eus

**KARRANTZA-HARANA**
946 806 928 · www.karrantza.org

**LEKEITIO**
946 844 017 · www.lekeitioturismo.eus

**MUNDAKA**
946 177 201 · www.mundakaturismo.com

**ONDARROA**
946 831 951 · www.ondarroa.eus

**URDUÑA**
945 384 384 · www.ordunaturismo.com

**OROZKO**
946 122 695 · www.gorbeiaeuskadi.com

**PLENTZIA**
946 774 199 · www.visitplentzia.com

**PORTUGALETE**
944 729 314 · www.portugalete.org

**SANTURTZI**
944 839 494 · www.visitsanturtzi.eus

**SESTAO**
944 070 985 · www.sestao.eus

**SOPELA**
944 065 519 · https://turismo.sopela.eus/

**ZIERBENA (La Arena)**
662 547 468 · www.zierbena.net
(urtaroaren arabera/aldizka irekitzen da)

## GARRAIOA

**AIREPORTUA**
Bilbo-Loiu · 913 211 000 (AENA)
www.aena.es/es/bilbao.html

**ITSAS BIDAIAK ETA FERRYA**
Bilbo-Portsmouth ferrya 902 108 147
www.brittany-ferries.es

**TRENAK**
RENFE. Abandoko Indalecio Prieto geltokia
Plaza Biribila 2
Bezeroei laguntzeko tel. ADIF 912 432 343
Bezeroei laguntzeko tel. RENFE Bilbo 944 879 222
Bezeroei laguntzeko tel. RENFE 912 320 320
www.renfe.com / www.adif.es

EUSKOTREN
Bezeroei laguntzeko tel. 944 333 333
www.euskotren.eus · 944 019 900

FEVE. La Concordia geltokia
Bailen kalea 2

**AUTOBUSAK**
Bilbao Intermodal (autobus-geltokia)
Gurtubai 1 · 944 395 077
· www.bilbaointermodal.eus

Bilbobus (udal-autobusak)
946 855 000/ 944 790 981
www.bilbao.net/bilbobus

Bizkaibus (autobusak, probintzia eta aireportua)
946 125 555 · www.bizkaia.eus

**BILBOKO METROA**
946 855 000 · www.metrobilbao.eus

**TRANBIA**
944 333 333 · www.euskotren.eus

**TAXIAK**
Radio Taxi Bilbao
944 448 888 · www.taxibilbao.com

Tele Taxi
944 102 121 · www.teletaxibilbao.com

Radio Taxi Nervión
944 269 026 · www.radiotaxinervion.com

Getxon:
BIZKAITAXI
www.bizkaitaxi.eus / 94 491 53 53

GETXOBIZI
www.nextbike.es / 900 29 35 51

**BIZIKLETAK ALOKATZEKO ZERBITZUA**
Bilbaobizi
946 564 905 · www.bilbaobizi.bilbao.eus

## OROKORRA

**LARRIALDIAK** 112
**INFORMAZIO OROKORRA** 010
(Bilbo udalerri barruko deietarako)
944 010 010 (Bilbo udalerritik kanpoko deietarako)

**KIDEGO KONTSULARRAREN BULEGOA**
944 706 426

**HERRITARREN ARRETA BILBOKO UDALA**
944 204 200

**ERREPIDEEI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA**
011

**GALDUTAKO GAUZAK**
944 204 981 / 944 205 000

## OSTATUAK

**NEKATUR/LANDA-OSTATUAK**
943 327 090 · www.nekatur.net
946 870 402 (Ihobe) · www.ekoetxea.eus

**HOTELEN ELKARTEA**
www.destinobilbao.com

**XARMA, Euskal Herriko ostatu xarmagarrien elkartea**
www.xarmahotels.com

## BILBOKO MUSEOAK

**GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA**
www.guggenheim-bilbao.eus · 944 359 000

**ARTE EDERREN MUSEOA**
www.bilbaomuseoa.eus · 944 396 060

**ARTE SAKRATUAREN MUSEOA**
www.bilbaomuseoa.eus · 944 320 125

**ITSASMUSEUM BILBAO**
www.itsasmuseum.eus · 946 085 500

**ASTE SANTUKO PASIO IRUDIEN MUSEOA**
www.museodepasosbilbao.com · 944 150 433

**BILBOKO ZEZEN MUSEOA**
www.bilbaomuseoa.eus · 944 448 698

**MUSEO VASCO / EUSKAL MUSEOA**
www.euskalmuseoa.eus · 944 155 423

**BERREGINEN MUSEOA**
www.bilbokoberreginenmuseoa.eus/es · 946 790 255

**ATHLETIC CLUB MUSEOA**
www.sanmames.athletic-club.eus/museo · 944 661 100

**EUSKARAREN ETXEA**
www.euskararenetxea.eus · 944 028 081

**ARKEOLOGIA MUSEOA**
www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 944 040 990

## BIZKAIKO MUSEOAK

### KOSTALDEAN

**ARRANTZALEEN MUSEOA (Museo del Pescador)**
Bermeo · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 946 881 171

**BUTROIKO PLENTZIA MUSEOA**
Plentzia · www.museoplentzia.org· 94 677 37 25

**RIALIA INDUSTRIA-MUSEOA**
Portugalete · www.portugalete.org/ES-ES/RIALIA · 944 729 200

**SANTURTZI ITSAS MUSEOA**
www.visitsanturtzi.eus · 944 839 494

**AGURTZA ONTZI-MUSEOA**
www.visitsanturtzi.eus · 944 839 494

**BIZKAIA ZUBIA**
Areeta Getxo) /Portugalete
www.puente-colgante.com · 944 801 012

**PUNTA BEGOÑA GALERIAK**
Getxo - www.puntabegonagetxo.eus

**URDAIBAI BIRD CENTER**
Gautegiz-Arteaga · www.birdcenter.org · 699 839 202

**EKOETXEA URDAIBAI**
Busturia · www.ekoetxea.eus · 946 051 275

**TXAKOLINGUNEA - TXAKOLINAREN MUSEOA**
Bakio · www.bizkaikoa.bizkaia.eus/txakolingunea · 946 028 513

**SANTA KATALINA ITSASARGIA**
Lekeitio · www.lekeitioturismo.eus/es · 946 844 017

### BARRUALDEAN

**SIMON BOLIVAR MUSEOA**
Ziortza-Bolibar · www.simonbolivarmuseoa.com · 946 164 114

**DURANGOKO ARTE ETA HISTORIA MUSEOA**
Durango · www.durangomuseoa.eus · 946 030 020

**ENKARTERRIETAKO MUSEOA**
Sopuerta · www.enkarterrimuseoa.eus · 946 504 488

**EL POBALEKO BURDINOLA**
Muskiz · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 629 271 516

**EUSKAL HERRIA MUSEOA**
Gernika-Lumo · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 946 255 451

**GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOKO FUNDAZIOA**
Gernika-Lumo · www.gernika-lumo.eus · 946 270 200

**GERNIKAKO BATZAR ETXEA**
Gernika-Lumo · www.gernika-lumo.eus · 946 270 200

**BASONDO**
Urdaibaiko basafaunaren aterpea (Kortezubi)
www.basondo.com · 946 254 436

**MEDIZINAREN ETA ZIENTZIEN HISTORIAREN EUSKAL MUSEOA, "JOSE LUIS GOTI"**
Leioa · www.ehu.eus · 946 012 000

**OROZKOKO MUSEOA**
Orozko · www.orozkomuseoa.eus · 946 339 823

**EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEOA**
Gallarta · www.meatzaldea.eus · 946 363 682

**BALMASEDAKO HISTORIAREN MUSEOA**
Balmaseda · www.visitenkarterri.com · 946 802 976

**LA ENCARTADA FABRIKA MUSEOA**
Balmaseda · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 946 800 778

**VALENTÍN DE BERRIOTXOA MUSEOA**
Elorrio · www.visitelorrio.com · 946 820 164

**LOIZAGA DORREA. ANTZINAKO AUTOEN ETA AUTO KLASIKOEN MUSEOA**
Galdames · www.torreloizaga.com · 672 248 759

**BURDIN HESIAREN OROIMENAREN MUSEOA**
Berango · www.cinturondehierro.eus · 946 682 143

**ANTZASTI MUSEOA**
Dima · Artaun auzoa 35, 48141,
www.antzasti.eus · 628 32 22 75

**MUSEO DE ORDUÑA / URDUÑA HIRIKO MUSEOA**
Urduña ·orduñahiria.org · 635 751436

**KARPIN FAUNA, BASAFAUNAREN HARRERA-ZENTROA.**
Karrantza
www.bbkkarpinfauna.eus
946 107 066

**HONTZA MUSEOA FUNDAZIOA.**
Mañaria · www.hontzamuseoa.eus · 946 216 555

**IZENADUBA BASOA**
Euskal mitologia-parkea. Olentzeroren etxea
Mungia · Landetxo Goikoa baserria
www.izenaduba.com · 946 740 061

**DOLOMITAS FABRIKA MUSEOA**
Karrantza · www.visitenkarterri.com · 946 806 928

**KONTZEJU ZAHARRA INTERPRETAZIO-ZENTROA**
Markina Xemein · www.leaartibaiturismo.com/es/hacer/detalle/kontzeju-zaharra · 618 595 593

**MUÑATOIZKO GAZTELUA**
Muskiz · www.visitenkarterri.com · 629 271 516

**ANGURRETA HARROBIA ARTE ESPAZIOA**
Mañaria · angurreta@gmail.com

## NATURAGUNEAK

**URDAIBAIKO BIOSFERAREN ERRESERBA**
www.urdaibai.eus · Tel.: 94 403 23 60
946 870 402 (Ihobe) · www.ekoetxea.eus

**GORBEIAKO NATURA-PARKEA**
946 122 695
www.gorbeiaeuskadi.com

**URKIOLAKO NATURA-PARKEA**
946 814 155 · www.urkiola.net

**ARMAÑONGO NATURA-PARKEA**
946 560 079 · www.visitenkarterri.com

**POZALAGUAKO KOBAZULOA**
www.cuevadepozalagua.eus

**SANTIMAMIÑEKO KOBAZULOA**
santimamiñe.com

**OMAKO BASOA**
www.bizkaia.eus/es/web/bosque-oma-basoa

Bilbao

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

bilbaoturismo.net
visitbiscay.eus

BILBAO
BIZKAIA
be basque

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

